



HAL
open science

Nafarroako hizkuntz sailkapenaz

Gotzon Aurrekoetxea

► **To cite this version:**

Gotzon Aurrekoetxea. Nafarroako hizkuntz sailkapenaz. Lapurdum, 2005, 17, pp.109-124. artxibo-00072381

HAL Id: artxibo-00072381

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00072381v1>

Submitted on 24 May 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

NAFARROAKO HIZKUNTZ SAILKAPENAZ

GOTZON AURREKOETXEA OLABARRI

Euskal Herriko Unibertsitatea

0. Sarrera

Euskalkien eta hizkeren sailkapenaz gure artean jardun izan denean orain arte gramatika kontuekin ari izan da batik bat. Horrela, historikoki, bai fonologi desberdintasunak bai morfologiazkoak (izen eta batez ere aditz morfologiazkoak) izan dira gehien landu direnak. Sintaxia, ostera, ahaztuxe gelditu da, gaiak nola edo halako zailtasunak biltzen dituelako dialektologoentzat.

Lexikoak halako bazterketa bat ezagutu du estrukturalismoaz geroztik, eta oso gutxi landua izan da zeregin honetarako. Bonaparte printzeak berak ere gramatika ezaugarrietan oinarritu zuen bere ekarria, lexikoaren kaltetan. Jacques Allières izan da, behar bada, gehien erabili duena, bai Iparraldeko hizkeren mapak egiteko (1960-61, 1977-1986), bai euskararen eremu osoa landu izan duenean (1994).

Ikerketa honetan lexikoa landu da. Lexikoaren egituraketa aztertu nahi da, eremu konkretu bat landuz.

1. Hizkeren sailkapenaz

Egia esan behar bada hizkeren sailkapenaz lan gutxi egin da gure artean. Eta zergatia begi bistakoa da: oraintsu arte ez da eremu handiak biltzen izan dituen bilketa lanik egin.

Argitaratu izan diren ikerketa zabal apurrak desegoki gertatu dira gehienetan hizkeren sailkapenean baliatzeko arrazoi bat edo beste tarteko. Hala, *Erizkizundi*

Irukoitza ez da gertatzen eroso; informazioa bildu den herrien sarea laxoegia da inkesta leku gutxiegi azaltzen duelako eta ondorioz ez da baliagarri.

Euskalerriko Atlas Etnolingustikoa (EAEL) ere, euskararen eremu osoa hartu arren, oso gutxi baliatua izan da hizkeren arteko desberdintasun eta sailkapenez aritzeko.

Euskararen eremu osoa hartzen duten bi lan hauez gain badira beste batzuk eremu txikiagoa hartzen dutenak: batetik J. Allières-ek Iparraldeko hizkeren mapak egiteko erabili dituen Bourciez eta Sacaze korpusak. Bestetik, A. M. Echaidek (1989) Nafarroa Garaian bildutako datuak.

Korpus handien gabezia hori hizkeren azterketa monografikoekin estaltzen da neurri batean euskararen eremuan. Asko dira jada era honetako argitalpenak eta bidean direnak ere ez dira gutxi. Ikerketa hauek, hizkerak sakonki ezagutzeko abagunea ematen badute ere, ez dira erosoak gertatzen hizkeren sailkapena egiteko, elkarren artean diren metodologia desberdintasunak eta bildutako korpusen bateraezintasunak eraginik. Korpus horiek erkaezinak gertatzen dira sarri.

Dena den, gabeziak gainditzeko asmoarekin hasi dira azkenaldion hizkerak sailkatzeko saioak argitaratzen. Aurrekoetxeak 1992an egin zuen lehen saioa, Nafarroan A. M. Echaidek bildutako datuak erabiliz. Horretarako gaur egun dialektologian hizkerak sailkatzeko erabiltzen diren prozedurak erabili zituen. Lau urte geroago 1996an, bizkaierara edo hobeki esanik euskararen mendebaldeko 45 hizkerara mugaturik, gramatika ezaugarriak jokoan sartuz egin zuen bigarrena.

Orainsuago Koldo Zuazok (1998), Bonapartek erabilitako metodologia erabiliz, euskalkien beste mapa bat proposatu du.

Guk nahiago dugu hizkeren sailkapenean gaur egun erabiltzen diren prozedurak baliatzea¹. Sailkapenez jardutean hizkuntzalari zein dialektologoa gainontzeko zientzietan sailkapenentarako erabiltzen dituzten prozedura eta metodologia erabiltzera behartuta dago bere lana sinesgarria izan dadin.

Prozedura sailkatzaile hauek arruntak dira bai soziologian, bai biologian, bai geografian, antropologian, sikologian zein beste disziplinetan. Beste behin ere esana dudan moduan, gure inguruko zientzietarako baliagarri diren prozedurak ez ote da zilegi hizkuntzalaritzan ere erabiltzea? Zilegitasun osoa dugula uste dugu eta horrela ulertu da hizkuntzalaritza aplikatuan, zein dialektometria izenez ezagutzen den disziplinan, eta jada nazio eta hizkuntza desberdinetan erabilia izan da (Goebel 1992, 433-434).

Ikerketa lan honetan 1992an Nafarroako datuekin hasitako bideari ekin diogu. Hartan hizkerak banaka aztertzea izan zen helburua. Haran edo azpieuskalki bakoitzean hizkera bat hautatu eta besteekiko hizkuntz hurbiltasun / urruntasuna aztertzea, alegia.

¹ Ikus besteak beste H. Goebel 1992, W. Viereck 1985, J. Séguy 1973, H. Guiter 1973, Philipp 1990, Kirk/Munroe 1989, Thomas 1980, Melis/Verlinde/Derynck 1989, Polanco 1984, Fossat 1992, Saramago 1986...

Honetan, ostera, eremua bere osotasunean hartuz hizkeren artean azaltzen den egituraketa geolinguistikoa aztertu gura da; “nola dago egituratuta lexikoa Hegoaldeko Nafarroan?” itaunari eratzuna ematea, hain zuzen ere.

Ikerketa burutzeko datuak ikerketa nire 1992koan erabilitakoak dira. Hau da, 53 hizkeratan 109 galderatik jaso diren erantzunak. Guztira 5.777 item.

Hizkeren arteko lexiko-desberdintasunak zehaztean ikerketa batzuetan etimologia bakarrik hartzen da kontuan, bestelako desberdintasunak aintzat hartu gabe. Gure kasuan etimologiazkoez gain, gainontzekoak ere kontuan izan ditugu. Esate baterako, *goitu* eta *goititu* ez ditugu arras berdintzat jo. Desberdintasunak mailakatu egiten ditugu. Mitxelenak aipatzen zuen ponderazioa datorkigu gogora. *Ordu* eta *oren* berben arteko desberdintasuna, eta *ostegun* eta *ortzegun* hitz edo formen artean ez da bera. Bide beretik *jai* eta *festa* hitzen artean dagoen desberdintasuna eta *festa* eta *besta*-ren artean dagoena ez da bera. *Oren* eta *ordu* edo *jai* eta *festa* hitzen arteko bereizkuntza etimologikotzat jotzen da eta *ostegun-ortzegun* edo *festa-besta* formen artekoa aldaera mailakotzat. Horrela, desberdintasunak ponderatzen dihardugu eta ponderazio hau azken muturreraino eramango dugu lan honetan.


Gauzak horrela, guztira 108 tipo lexikal desberdin zenbatu dira bildutako korpusean. Aldagarritasun txikia eskaintzen dute datuok. Tipo lexikal hauen kopurua aldagarria da galdera batetik bestera: 33 galderatan tipo bakarra azaltzen da (%31); mapa mononimo hauek ez dute aldagarritasunik adierazten. 2-tik 4-ra tipo lexikal desberdin 52 galderatan azaltzen dira (%48); gainontzeko %21-etan lau tipo lexikal baino gehiago agertzen dira.

Aipatu bezala, 33 mapa monolexematiko agertzen dira datuen arabera. Honelako datuak aztertzeko joera desberdinak daude. Ikertzaile batzuk baztertu egiten dituzte hizkeren arteko sailkapena egiteko². Guk, ordea, denak sartu behar direla uste dugu. Jada beste nonbait esana dugun legez, hizkeren sailkapena egitean hizkeren arteko distantziak neurtzen dihardugu. Horrerarako, hizkeren arteko desberdintasunak nola berdintasunak zenbatu behar dira. Desberdintasunak baino ez badira kontuan hartzen (mapa monolexematikoak baztertuz) distantziak egiatan direnak baino handiago bihurtzen dira eta ez dute errealitatea islatzen. Errealitate linguistikoa desitxuratuta azaltzen da. Baina edozein prozedura sailkatzailearen helburua errealitatea ahal bezain fidelki islatzea izan beharko litzateke. Ez da nahikoa multzokatze zuzena burutzea, multzoen arteko harremanak ere zuzenak izan behar dira. Mapa monolexematikoak baztertuz multzokatze zuzena lortuko da, baina ez da inondik inora ere lortuko multzoen arteko distantziak modu zuzen eta egokian agertzea. Distantziak gaindimentsionatuta agertuko dira hurbiltasunen kaltetan. Errealitatean dauden baino urrunago agertuko dira.

Gure ikerketako 53 hizkeren arteko harremanak zertan gauzatzen diren zehazteko datuen analisirako teknikak erabiltzea erabaki dugu, hauen helburuetan “(...) décrire, classer et clarifier les données” (Fénelon 1981, 33) izanik, gure helburuetarako berariaz eginak bezala har daitezkeelako. Teknika eta prozedura multzoa da ikertzaile-dialektologoak eskuartean duena; horien artean prozedura bat aukeratu da “Cluster analysis” edo “Goranzko sailkapen automatikoa” edota “dendrograma” terminoez

² Ikus Bothorel-Witz, A. / S. Vetter, 1989, adibidez.

ezagutzen den estatistika-prozedura, hain zuzen ere. Eta prozedura honetan diren aukeren artean “Ward metodoa” (distantzia euklidea) deitua, gure datuei ondoen egokitzen zaielako.



2. Dendrogramaren irakurketa

Dendrograma hau bi zutabe (Label eta Num) eta eskala batez (CASE) osatuta dago. “Label” zutabean ikerketan aztertzen diren hizkeren kodea agertzen da (ikus eranskina). “Num” zutabean aztertzen diren hizkeren kopurua azaltzen da; guretzat garrantzirik ez duen zutabea da. “CASE” 0-tik 25-era mailakatuta dagoen eskala da. Hizkeren arteko desberdintasuna markatzen du eskala honek; bi hizkera zenbat eta maila

garaiagoan elkartu orduan eta hizkuntza distantzia handiagoa izango dute elkarren artean.

Dendrograman azaltzen diren datuen irakurketarako bi abiapuntu erabiltzen dira ohiz: goranzko irakurketa, eskalan “0”tik abiatuz, irudiko ezkerretik, edo beheranzko irakurketa, eskalako 25 mailatik hasiz, irudiko eskuinaldetik. Guk bigarren bide hau proposatzen dugu Nafarroako datuen irakurketarako.

Gure ikerketan aukeratu ditugun hizkera guztiak eskalako 25. mailan biltzen dira. Hizkera guztiak eremu batean integraturik agertzen zaizkigu maila honetan. Aztertutako Nafarroako hizkeren eremu osoa bildurik dago bertan.

Eskalan maila edo urrats bat jaitsiz bi multzo handitan banatzen dira hizkerak. Multzok bereizteko lehenari A deituko diogu eta bigarrenari B:

- a) A multzo edo gunea “Label” zutabeko H20 kodea duen hizkeratik H5 kodea duenerainoko hizkerak osotzen dute. Guztira 31 hizkera. Hizkera hauek Zaraitzu, Aezkoa, Hegoaldeko goi-nafarrera, Ultzama, Basaburua eta Imotzeko hizkerak dira, inguruko beste hizkera batzuekin batera (ikus mapa).
- b) B gunek “Label” zutabeko H39 kodea duen hizkeratik azkeneraino doazen hizkerak barne hartzen ditu. Guztira 22 hizkera. Burunda, Sakana, Araiz, Bortzirietia eta Baztango hizkerak.

Horrela, Nafarroako datu lexikal hauekin egindako lehen sailkapenean bi eremu handi izango genituzke: bata Ipar-mendebaldean kokaturik eta Hego-ekialdean bestea. Ezaugarri lexikalak bakarrik kontuan hartuta Nafarroako hizkerak banandu beharko balira lehen abiapuntua hau izango litzateke, lehen bi gunek nagusiak hauek izango lirateke.

Zeintzuk diren bi gunek hauen ezaugarriak? Zein hizkuntza ezaugarri diren pisu handiena izan dutenak sailkapen hau egitean?

Itzul gaitzen datuetara: 25. mailan eragina duten desberdintasunak hauek dira: A multzoaren ezaugarri nagusienak *pentze,-soro, gaminta-kanibeta, besko-bertz, lixu, kuna, askazi-ahaide, emazte-emazteki, txuku-seko, pisu, biluzi, bellitu-i(ra)tzarri*. Eta B eremuaren ezaugarri nagusienak, ostera, ondokoak: *barruti-larra-belagi, nabala, kasula-pasin-posala, lixiba-bokata, sehaska, jendaki-familia, idor, karga, larrugorri-biliskorri, esnatu eta mendi-baso*.

Honek ez du esan gura, bistan da, ezaugarri hauek oso-osoan eremu horretako hizkera guztietan jaso direnik eta eremu horretan baino erabiltzen ez direnik, eremuak sortzean, sailkapena burutzean, pisu handiena izan dutela baino.

Dendrogramako eskalan ezkerretik edo beherantz beste urrats bat ematen badugu eta 10-15 maila bitartean gure begiak pausatu, bi multzo handi horietako bakoitza beste bitan zatitzen dela ikusiko dugu:

A multzoa ondoko bitan bananduta dago:

- A1) H20 hizkeratik H11 hizkeraraino doazen hizkerak alde batetik, hots dendrogramako lehen 24 hizkerak. Denak A eremuaren erdi-ekerraldean kokatuta aurkitzen direlarik.
- A2) H49 hizkeratik H5 hizkeraraino bestetik. Eremuaren eskuinaldean kokatuta dauden 7 hizkerak osatzen dute azpimultzo hau.

B multzoa, bere aldetik, beste bitan banatzen da:

- B1) H39 hizkeratik H42 hizkeraraino batetik. B eremuko Hego-mendebaldean kokatuta dauden 7 hizkerak dira osatzen dute.
- B2) H56 hizkeratik H46 hizkeraraino, bestetik. 15 hizkerarekin osatuta eta B eremuaren Iparraldean kokatuta dagoena.

Badugu jada aztertzen dihardugun eremu osoa lau multzotan bananduta. Lehenik bi multzo handitan eta hauek ondoren beste bi multzotan.

Oraindik dendrogramaren eskalan beherago jaisteko aukera ere bada, eremu txikiagoak lortzea gura bada. Halatan, A1 multzoan 8. mailan kokatzen da hurrengo hizkerak banaketa, A1 multzoa bitan bananduz: A11 multzoa, H20 hizkeratik H45-ra, eta A12 multzoa, H33-etik H49-ra.

A11 multzoari segituz mailak jaisten jarraitzen badugu beste multzo txiki batzuk aurkituko dira eskalako 3. mailan, adibidez; 2.ean beste txikiago batzuk. Era berean, edozein gunetatik hasiz, mailaz maila jaitsi daiteke eskalako 0 mailara heldu arte.

Goranzko irakurketaren bidez hizkerak bere bakartatetik edo ezaugarrietatik abiatuz inguruko hizkerekin gero eta espazio handiagoak eraikitzen ikusten dira, aztertzen diren hizkerak guztiak bildu arte.

Prozedura hau hizkerak sailkatzeko guztiz egokia da une oro ikusten baita zein duen hurbilen, zeinekin biltzen den geroago eta nola hartzen duen parte hizkuntza espazioaren egituraketan.

Jada ez dugu eremu bakoitzaren ezaugarri zerrenda lantzen eta gainontzeko eremuekin zeinetan den berdina eta zeinekin desberdina aztertzen. Prozedura honetan "a priori" eraikitzen den eremurik ez dago. Eremuen marrasketa datu guztiak kontuan hartuz prozedura sailkatzaileen emaitzen proiektzioarekin gauzatuko da.

3. Interpretazio geolinguistikoa (Nafarroako hizkerak bi eremutan)

Gorago ikusten den dendrogramaren proiektzio kartografikoa eraikiz honela azaltzen da Nafarroako hizkeren lehen sailkapena (ikus mapa):

Nafarroako hizkerak bi eremu handitan bananduta agertzen zaizkigu: bata Hego-ekialdean kokatuta, alde batetik (dendrograman A multzoa deitu duguna), eta

bestea Ipar-mendebaldean (B multzoa). Koherentzia handia duen mapa dugu, ikuspuntu geolinguistikotik begiratuz. Bi eremu trinko, bakoitzak bere esparrua duelarik. Lau hizkera baino ez daude dagozkien eremutik kanpo lekututa. Hizkera hauek (hots, H35-Albiasu, H36-Azkarate, H37-Areso eta H49-Narbarte) B eremuan kokatuta egon arren, A eremuko hizkuntza ezaugarri gehiago dituzte eta A eremuari dagozkio, dendrogramari kasu egiten bazaio, behinik behin. Eremuz kanpo aurkitzen diren hizkeron kasua geroago aztertuko da.

Mapa hau Bonaparte printzeak burututako IV. sailkapenarekin erkatzen bada zertxobait desberdina izan arren, antzekotasun handiak dituela konturatzen gara: izan ere gure mapako isoglosa nagusiak (dendrogramako 25. mailan kokatzen dena) Bonapartek marraztutako muga batzuk korritzen ditu. Hain zuzen ere marra honek bereizten ditu Baztan, Bortzirietan, Arantzazu, Arakil eta Sakana batetik eta Ultzama, hego-nafarrera garaiko hizkerak, aezkera eta zaraitzukoak bestetik.

Kontuan hartzen bada Bonapartek erabilitako irizpideak (nagusiki irizpide gramatikalak) eta gureak (lexikalak) guztiz bestelakoak direla, harriztekoa da hain hurbil izatea bi prozedurak ondorioetan.

Desberdintasun nabarmenena Ultzamako hizkeraren kokagunea litzateke. Gainontzeko mugak oso-osorik errespetatzen dira. Beraz, irizpide lexikalak kontuan hartuz, Bonaparteren sailkapena onargarri litzateke gaur egun ere Ultzamako barietatea Ipar-nafarrera garaitik Hego-nafarrera garaira aldatuz.

Zertan datza Ultzamako hizkeren eta Anue eta Esteribarreko hizkeretik hurbiltasun hori? Edota zertan da Ultzamako hizkeren eta Baztango, kasu, hizkeren arteko urruntasun hori? Eskuarlean dugun datuteriaren arabera 108 ezaugarri edo hobe esanik galderetatik 74-tan berdin-berdin erantzun dute Ultzama osoko eta Anue-Esteribarreko hizkeretan.

Ondorio hauek bat datoz O. Ibarrek lortutako datuekin ere, bere tesiko ondorioetan honako hau dionean: “A eremuan [Ultzama, Atetz eta Anue] mintzo den euskara eta hegoaldeko GN-ren arteko harremana oso nabarmena da. Esan daiteke Ezkabarte, Odieta eta Esteribar haranak, -hegoaldeko GN-ren hizkerak izanik- oso hurbil daudela ultzameratik” (1994, 683). Aurreko lerrootan gramatikaz badihardu ere lexikoari buruz ere berdintsu mintzo da orrialde batzuk geroago (idem, 688).

Ultzamako hizkeretan eta Baztangoetan, ordea, gutxiagotan jasotzen da erantzun bera eta desberdintasunak handiagoak dira. Berdintsu esan daiteke Ultzamako eta Bortzirietako kasuan ere.

Kuriosotzat har daiteke, bestalde, Basaburua Txikiko bi hizkeren kasua. Bata (Eratsun) A multzoan kokatzen den bitartean, bestea (Beintza-Labaien) B multzoan kokatzen baita. Bi herriotako erantzunak erkatuz 24 alditan jaso dira desberdin (tartean dira *esan-erran*, *bost-bortz*...). Beintza-Labaienek Eratsunek baino askoz ere Ipar-ekialdeko ezaugarri gehiago ditu (*erran*, *bortz*, *aitzin*, *ebatsi*, *bida*...) eta ondorioz, ezaugarri amankomun gehiago Baztan eta Bortzirietako hizkerekin.

4. Eremu bakoitzaren barietateak

Dendrograma berrartuz eta 25. maila hartu ordez 10-15 bitarteko mailako datuak irakurtzen hasiz eremu bakoitza bitan zatitzen dela ohartuko gara.

4.1. Hego-ekialdeko eremua

A eremua 12 mailan zatitzen da bi eremutan:

4.1.1. Erdialdeko eremua. Hemen kokatzen dira dendrograman A1 deitu den eremuko hizkerak. Guztira 24 hizkera. Hizkera hauek eremuaren erdi-mendebaldea hartzen dute. Auritzetik hasi eta Esteribarreko hizkerak, Anue, Ultzama, Atetz, Imotz eta Basaburuakoak hartzen ditu bere barnean.

4.1.2. Ekialdeko eremua. Dendrograman A2 deitu den eremu hizkerak: H2, H3, H4, H5, H6 eta H9. Hau da, Zaraitzuko hizkerak, Aezkoakoak (salbu Hiriberri) eta Luzaideko hizkera.

Hiriberri (H7) ez da kokatzen linguistikoki eremu honetan. Nire 1992ko ekarpenean azaltzen zen jada mendebalderagoko hizkerekin zuen hurbiltasuna; A. M. Echaidek bildutako datuen arabera linguistikoki Hiriberri hurbilago dago Aintzioatik Orbaizetatik baino.

Beraz, Bonaparteren mapa berrartuz Hegoaldeko goi-nafarrerako hizkerak eta behe-nafarrerako hizkerak bereizten dituen isoglosa kuantitatiboa genuke bi eremuok bereizten dituen muga. Berrero ere bat datoz Bonaparteren mapak eta gureak marrazten duten mugak, nahiz gorago esan bezala muga horien kuantifikatze edo garrantzian desberdintasunak izan.

Bide beretik Caminok ere argiki erakutsi du aezkera eta goi-nafarreraren artean lexikoan ematen den harreman estua (1997, 260).

4.2. Ipar-mendebaldeko eremua

Ipar-mendebaldeko eremuko hizkerak eskalako 13. mailan bi zatitan banatzen dira:

4.2.1. Mendebaldeko eremua. Dendrograman B1 deitu den eremua da eta 7 hizkerek osotzen dutena: H31, H32, H34, H39, H40, H41 eta H42. Hots, Sakana, Arakil eta Araizko hizkerak, Goizueta salbu.

4.2.2. Iparraldeko eremua. Dendrograman B2 eremua deitu dena eta 15 hizkera gordetzen dituena: Bortzirietako hizkerak, Baztangoak eta Goizueta (H56-tik H46-ra arteko hizkerak).

Bi eremu hauek ere oso homogeneousak dira eta koherentzia geolinguistikoko handia erakusten dute. Bien arteko mugak Araiz eta Arakilgo hizkerak batetik, eta Bortzirietakoak, bestetik, bereizten ditu. Muga hau duela mende bat Bonapartek bere mapan ezarritakoarekin guztiz bat dator.

Ipar-mendebaldeko eremu osoa gogoan edukiz Bonaparteren mapan azpieuskalki desberdinak azaltzen dira: Baztangoa, Bortzirietakoa, Araizkoa eta Arakilgoa (Gipuzkoakoa eta Ultzama kanpoan utziz). Azpieuskalki horien arteko mugak maila berekoak ote ziren? Ez da erraza erantzutea, baina oraingo datuekin eta egungo metodologiarekin mugen maila edo garrantzia ere neur daiteke eta itaun horri erantzuna emateko prest gaude. Dendrogramaren aurrean jartzen bagara eta B2 eremuan pausatu gure begirada (hau da Ipar-mendebaldeko eremuko Iparraldeko hizkerak) hizkeren hurrengo zatiketak (eskalako 7. mailan ematen denak) Baztango hizkerak biltzen ditu alde batetik eta gainontzekoak, bestetik. Zer esan gura duen honek? Ondokoa: Ipar-mendebaldeko hizkerak bi multzotan banandu behar balira lehen-lehenik B1 eta B2 multzoak bereizi behar direla, jada egin dugun moduan. Eta multzo txikiagoetan zatitu nahi izanez gero, hurrengo zatiketan, Baztango hizkerak (dendrograman H56, H57, H58 eta H58) banatuko genituzke.

Eremuz kanpoko hizkerak

Ipar-mendebaldean badira hizkera batzuk linguistikoki Hego-ekialdeko eremukoak direnak. H35, H36 eta H37 hizkerak batetik, eta bestetik H49, euren eremutik kanpoko hizkerekin linguistikoki harreman handiagoak erakusten dituzte.

Azterketa sakonago baten beharra erakusten duen arren, jada esan daiteke badirela ezaugarri berdinak bateko eta besteko hizkeretan. Lehen hizkera horiek badituzte ezaugarri batzuk A1 eremuko hizkerekin berdinak direnak, eta aldi berean, H32 edo H34 hizkeretatik, kasu, bereizten dituztenak. Desberdintasunen artean *etorri / allegatu*, *barda / (atzo) gauea*, *amona / amandre*, *iluntze / ilunabar-gaualde...* aipa daitezke. Berdintsu esan daiteke H49 hizkerari buruz. Baina gaiak tratamendu berezia behar duela ohartzen gara, hizkera konkretuetara mugatu behar ez dena gainera. Orokorki oratu beharreko arazoa da, noizbait irtenbide onargarria bilatu beharko zaiona.

Ondorioz

Nafarroako (Nafarroa Garaiko esan beharko genuke) euskararen eremu osoa hartuz ezaugarri lexikalen araberako sailkapena egiteko, estatistikak ematen digun laguntza erabiliz, prozedura eta metodologia berria plazaratzea izan da lan honen helburua.

Emaitzak, oro har, tradizioz ezagutzen ziren sailkapenekin, ñabardura batzuk tarteko, guztiz erkagarri direla esango genuke. Nafarroako hizkerak lau eremu desberdinetan sailkatuz gero sortzen diren mugak eta Bonapartek bere garaian irizpide desberdinekin burututakoa bat datoz nagusiki, harrigarri gertatzen bada ere. Garrantzi handiko gertaera da hau. Izan ere, mende bat tarteko, hizkuntza datuak guztiz bestelakoak izanik batetik, eta azterbidean jarraitu diren irizpide eta prozedurak ere

zeharo desberdinak izanik, emaitzetan bat etortzea ez da kasualitatez ematen den ondorioa.

Hasi berria den bide honek bihurtune ilun asko ditu oraindik, ibilian argitu beharko direnak. Horien artean, gorago plazaratu den eta eztabaidagai gelditzen den mugen kuantifikazio edo mailakatzea.

Bibliografia

- Allières, J., 1960-61, "Petit atlas linguistique basque-français 'Sacaze'", *VD IX*, 204-221; *X*, 82-126.
- Allières, J., 1977-1986, "Petit atlas linguistique basque-français 'Bourciez'", *FLV IX*, 353-386.
- Allières, J., 1994, "Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoaz", in R. Gómez eta J.A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, ASJUren gehigarriak XXVIII, 45-58.
- Aurrekoetxea, G., 1992, "Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa", *Uztaro 5*, 59-109.
- Aurrekoetxea, G., 1995, *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*, UPV-EHUko Argitalpen Zerbitzua, Serie Tesis doctorales, Leioa.
- Bothorel-Witz, A. / S. Vetter, 1989, "Vers une identification des types dialectaux alsaciens: essai de typologie automatique", in *Espaces romanes. Etudes de dialectologie et de géolinguistique offertes à Gaston Tuillon*, vol. 2, Grenoble, 488-509.
- Camino, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Echaide, A. M., 1984, *Erizkizundi Irukoitza*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Echaide, A. M., 1989, *El euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-1967)*, Cuadernos de sección Hizkuntza eta Literatura, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Fénelon, J.-P., 1981, *Qu'est-ce que l'analyse des données*, Lefonen, Paris.
- Fossat, J.-L., 1992, "Architecture d'une base de connaissance dialectale: contribution à la modélisation du fait dialectal occitan", in G. Aurrekoetxea / X. Videgain (arg.), *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak Iker 7*, Euskaltzaindia, Bilbo, 111-134.
- Gaminde, I., 1996, "Esteribarko euskararen azentuaz", *Uztaro 16*, 109-123.
- Goebel, H., 1983, "Matrices, Distances et Interpoints. Etude dialectométrique sur les isoglosses quantitatives (avec application à l'ALF)", *Cahier des Annales de Normandie 15*, Caen, 113-137.
- Goebel, H., 1992, "Problèmes et méthodes de la dialectométrie actuelle (avec application à l'ALS)", in G. Aurrekoetxea / X. Videgain (arg.), *Nazioarteko dialektologia biltzarra. agiriak* Euskaltzaindia, Bilbo, 429-476.
- Guiter, H., 1973, "Atlas et frontières linguistiques", in G. Straka / P. Gardette (arg.), *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux (col. de Strasbourg 1971)*, Paris, 61-109.
- Ibarra, O., 1995, *Ultzamako hizkera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Kirk, J. M./ G. Munroe, 1989, "A Method for Dialectometry", *Journal of English Linguistics 22*, 97-110.

- Lafon, R., 1955, "Sur la place de l'aezcoan, du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes basques", *Pirineos* XI, 109-133.
- Leizaola, F. (koord.), 1982-1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa-EAEL- I-II*, Aranzadi Zientzia Elkarte, Donostia.
- Melis, L./ S. Verlinde / P. Derynck, 1989, "Dialectologie: Domaine roman (la notion de dialecte supralocal: essai de définition dialectométrique)", *Orbis* XXXIII 1-2, 70-132.
- Mitxelena, L., 1964, "La interpretación de las diferencias dialectales", in *Sobre el pasado de la lengua vasca*, 2. Kap. 43-67.
- Philipp, M., 1990, "Lexikalische kontinuierität und variabilität im Elsab", in M. Philipp (arg.), *Alemanische Dialectologie im computer-zeitalter*, 91-130.
- Philps, D., 1985, *Atlas dialectométrique des Pyrénées centrales*, Thèse de Doctorat d'Etat, 2. vols. Toulouse (argitaragabea).
- Polanco, L., 1984, "Llengua y dialecto: una aplicació dialectométrica a la llengua catalana", in *Actes du XVIIe Congrès International de Linguistique et Philologie Romanes (Aix-en-Provence 1983)* vol.5, Aix-en-Provence, 15-30(eta *Miscel·lània Sanchis Guarner* I, Universitat de València, 1984, 267-276).
- Saramago, J., 1986, "Differentiation lexicale (un essai dialectométrique appliqué aux matériaux portugais de l'A.L.E.)", *Géolinguistique* II, 1-31.
- Seguy, J., 1973, "La dialectométrie dans l'Atlas linguistique de la Gascogne", *RLiR* 37, 1-24.
- Thomas, Lan R., 1980, *Areal analysis of dialect data by computer a welsh example* University of Wales Press, Cardiff.
- Viereck, W., 1985, "Linguistic atlases and dialectometry: The survey of English dialects", in J.M. Kirk /S.F. Sanderson /J.D. Widdowson (arg.), *Studies in linguistic Geography*, Londres, 94-112.
- Zuazo, K., 1989, "Euskalkiak, gaur", *FLV* 78, 191-233.

Eranskina: aztertzen diren herrien izen eta kodeak

H2	Itzaltzu	H33	Oderitz
H3	Espartza	H34	Baraibar
H4	Jaurrieta	H35	Albiasu
H5	Abaurrepea	H36	Azkarate
H6	Orbaizeta	H37	Areso
H7	Hiriberri	H39	Lakuntza
H9	Luzaide	H40	Unanua
H11	Auritz	H41	Bakaikoa
H12	Aintzinoa	H42	Ziordia
H14	Eugi	H44	Goizueta
H15	Iragi	H45	Eratsun
H16	Leranotz	H46	Beintza-Labaien
H17	Inbuluzketa	H47	Oitz
H19	Aritzu	H48	Ituren
H20	Gerendiain	H49	Narbate
H21	Arraitz	H50	Sunbilla
H22	Auza	H51	Lesaka
H23	Eltzaburu	H52	Arantza
H24	Aroztegi	H53	Etxalar
H25	Berasain	H54	Bera
H26	Beuntza	H55	Almandoz
H27	Muskitz	H56	Ziga
H28	Etxaleku	H57	Arizkun
H29	Itxaso	H58	Amaiur
H30	Berute	H59	Urdazubi
H31	Uitzi	H60	Zugarramurdi
H32	Etxarri-Larraun		

a) Mendebalde / ekialde eremuak bereizten dituzten galderak:

- 197 galdera: gaizki, gaixo / eri
- 213 galdera: aurre / aitzin
- 220 galdera: baru / barne
- 231 galdera?: nekatu / akitu
- 232 galdera: gogoratu, akordatu / oroitu
- 233 galdera: aztu / atzendu, ahantzi
- 234 galdera: farra egin / irri egin
- 235 galdera: ostu / ebatsi
- 237 galdera: esnatu / i(ra)tzarri
- 247 galdera: Esan / erran
- 250 galdera: baso / mendi, oihan
- 265 galdera: bi / bida
- 268 galdera: bost / bortz
- 278 galdera: hamabost / hamabortz
- 285 galdera: hirurogei / hiruetan hoge (ez hain garbia)
- 286 galdera: larogei / lauetan hoge (ez hain garbia)

b) Ipar/Hego eremuak bereizten dituzten galderak:

- 60 galdera: ilar biribil, etxilar, maiatzilar / ilar
- 222 galdera: ausiki / ozka egin
- 233 galdera: aztu, atzendu / ahantzi
- 250 galdera: mendi / oihan
-

c) Hondarezko / mailegu:

- 252 galdera: jin, etorri / allegatu

d) Ddd

25. mailako ezaugarriak

- 20 galdera (zalantza): ordu / oren (?)
- 25 galdera: ostegun / ortzegun (?)
- 26 galdera: ostiral / ortziral (?)
- 71 galdera: soro, pentze / barruti, larra, belagi
- 143 galdera: kanibeta... / nabala
- 145 galdera: besko, bertz ... / kasula, pasin, posala
- 154 galdera: lixu / lixu, lixiba, bokata...
- 158 galdera: kuna... / sehaska
- 183 galdera: ahaide, askazi / jendaki, familia...
- 203 galdera: txuku, seko / idor
- 205 galdera: pisu / karga
- 206 galdera: larrugorri, erauntzi, jantzi gabe, biliskorri, arropik gabe, atortzik / biluzi
- 237 galdera: esnatu / bellitu, iratzarri, itzarri

35-36-37 eta 28-30-31-32-33-34

denak berdin: ur, burdina, euria, laino, ordu, erloju, astelehen, astearte, asteazken, larunbat, arrazoi, asun, tipula, ilar, txori, uso, auntze, gurdi, aitzur, bertz, auspo, lixu, aingeru, barkazio, mutil, neskame, andre, artzain, bizi, zahar, gaizto, seko, euskaldun, frantsesa, aurre, ireki, ertsi, nekatu, jaiki, esan, aberats, bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, hamar, hamaika, hamabi, hamahiru, hamalau, hamabost, hamasei, hamazazpi, hemezortzi, hemeretzi, hoge, berrogei, ehun, mila, sagar, bilatu = 66 kasutan erantzun bera jaso da hizkera guztietan

desberdin:

	28	30	31	32	33	34	35	36	37
	denboradenbora	egualdi	denbora	egualdi	denbora	denbora	egualdi	denbora	
	ortzegunostegun	ostegun	ostegun	ostegun	ostegun	ost	ost	ost	
	ortziral	ost	ost	ost	ost	ost	ost	ost	
	jai	festa	besta	jai	jai	beta	jai	festa	jai
argitze	argiaste	goi	argitze	goizalde	argitze	argitze	argitze	argitze	goizalde
	iluntze	iluntze	gau	ilunabar	gualde	gau	gaur	ilunabar	iluntze
	soro	soro	soro	iuntze	iuntze	iuntze	iuntze	barruti	beatze
	auntxuma								auntekume
	nabala	kanib.	nabala	nabala	nabala	nabala	nabala	nabala	nabala
	bixar n-	labana	bixar k-	kutxilla	bixar n-	bixar n-	bixar k-	bixar n-	labana
	ogatze	ogatze	ogatze	ogatze	ogatze	ogatze	ogatze	ogatze	ohe
	seaska	kuna	seaska	kuna	seaska	xesto	seaska	seaska	seaska
	jainkoa	jainkoa	jainkoa	jainkoa	jainkoa	jainkoa	jangoikoa	jangoikoa	jangoikoa
	amona	amandre	amona	amandre	amandre	amandre	amona	amona	amona
	par-ah	lengusu	par-ah	pariente	par-ah	par-ah	pariente	pariente	pariente
	mutil	mutil	mutil-m	mutil	mutil	morroi	morroi	morroi	morroi
	neskat-	neskat-	neskat-	neskat-	nesk-ne	neskato	neskat-	neska	neska
	andre	emak-	andre	emak-	emak-	emak-	emak-	emak-	emak-
	gaizki,-o	gaizki	gaitz	gaizki	gaizki	gaizki,-o	gaizki	gaizki	gaizki
	karga	karga	karga	pisu	karga	karga	pisu	pisu	karga
	biluzi	erauntzi	erauntzi	larrug.	erauntzi	larrug.	larrug.	jantz---	larrug.
	oinutsik	oinutsik	ankutsik	ankutsik	ankutsik	ankutsik	ankutsik	ankutsik	ankutsik
	maingu	maingu	makur	makur	makur	makur,m-	urgun	erren	urgun
	naparro	naparro	naparra	naparra	naparro	naparro	naparra	naparra	naparra
	ongi	ongi	ongi	ongi	ongi	ongi	ongi	ondo	ongi
	gaizki	gaizki	gaizki	gaizki	gaizki	gaizki	gaizki	ez...ong	gaizki
	makur-	makur-	oker-	gaizk-	gaizk-	gaizk-	oker-	gaizk-	gaizk-
	barne	barne	barne	barne	barne	barne	barne	barru	barne
	ozka e.	Ozkatu	ozka e.	ozka e.	ozka e.	ozka e.	ozka e.	ozka e.	ozkatu
	goratu	goratu	jaso	jaso	goratu	jaso	goratu	altxatu	goratu
	akord-	gogor-	akord-	akord-	akord-	akor-or.	akord-	akord-	akord-
	aztu	aztu	aztu	aztu	atendu	aztu	atendu	aztu	aztu
	irri e	irri e	farra e	farra e	farra e	farra e	farra e	farra e	farra e
	ebatsi	ostu	lapurtu	ostu	ostu	ostu	ostu	ostu	lapurtu
	lokartu	lokartu	lokartu	lokartu	lokartu	lokartu	lokartu	lotan e	lokartu
	iratzar-	iratzar-	esnatu	iratzar-	iratzar-	iratzar-	esnatu	esnatu	esnatu
	jostatu	jostatu	dostak-	dostak-	jostatu	jostatu	jostatu	jostatu	dostak-
	oihan	mendi	mendi	mendi	oihan	mendi	mendi	mendi	mendi
	etorri	etorri	allegatu	allegatu	allegatu	allegatu	etorri	etorri	etorri
	gaizt-	gaizt-	gaizt-	oker-	gaizt-	gaizt-	gaizt-	gaizt-	gaizt-
	atzo a	barda	barda	gauean	gauean	gauean	gauean	barda	barda
	hiruetan	hiruetan	hiruetan	hiruetan	hiruetan	hiruetan	hiruetan	hiruetan	hirurogei
	lauetan	lauetan	larogeti	lauetan	lauetan	larogeti	larogeti	larogeti	larogeti